


---

## Lur zailtako mikroorganismoak inokulatzeak landareen erresilientzia handitzen du

Landareek klima-aldaketari aurre egiteko ahalmen handiagoa izan dezaten, lurzoru gogorretan hazitako mikroorganismo-komunitateak inokulatzea eraginkorra izan daitekeela iradoki du ikerketa batek.

Ikertzaileek azaldu dutenez, landareak substratu baten gainean hazten direnez, ahalmen mugatua dute klima-aldaketari aurre egiteko. Hala ere, badira lurzoru zailtan (hotzak, lehorrak edo beroak) hazten diren landareak. Landare horiek lurzoruko mikroorganismoek esker eskuratzen dituzte hazteko behar dituzten mantenugaiak.

Orain, ikertzaile horiek frogatu dute mikroorganismo horiek, beste leku batzuetan txertatuta, toki berriko landareei ere laguntzen dietela hotzari, lehorteari edo beroari aurre egiten. Esperimentuak laborategian zein landan egin dituzte, eta, estres klimatikoarekiko tolerantzia areagotzen dutela baieztatzeaz gain, agerian jarri dute mikroorganismoen eta landareen arteko elkarrekintzaren garrantzia. ●




ARG.: Pixabay.

---

## Higgs bosoiaren desintegrazio arraro baten ebidentziak topatu dituzte

Higgs bosoiaren desintegrazio arraro baten lehen ebidentziak aurkitu dituzte LHC azeleragailuan, eta ikertzaileek uste dute fisikaren eredu estandarrak iragarri gabeko partikula berriak aurkitzeko aukera irekitzen duela horrek; [horixe adierazi du CERNeK](#).



ARG.: CERN

[2012an Higgs bosoa aurkitu zenetik](#), ATLAS eta CMS esperimientuetako ikertzaileak lanean ari dira partikula horren propietateak ahalik eta zehaztasun handienarekin ezagutzeko. Lan horren zati garrantzitsu bat da ulertzea nola desintegratzen den Higgs bosoa, eta zein beste partikula sortzen diren prozesu horretan.

Hala, ikusi dute desintegrazio horretan Z bosoi bat eta fotoi bat sor litezkeela; indar ahularen eta indar elektromagnetikoaren eramaileak, hurrenez hurren. Baina ikertzaileen arreta gehien piztu duena da Higgs bosoa ez dela zuzenean deskonposatzen partikula horietan; aitzitik, desintegrazio-prozesuan, bi partikula horiek sortu baino lehen, zuzenean detektatu ezin diren beste partikula "birtual" batzuk sortzen dira, eta susmatzen dute partikula horietako batzuk erabat berriak izan litezkeela, eredu estandarrak iragartzen ez dituenak. ●